

## BESTELAKO XEDAPENAK

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 3003

*AGINDUA, 2025eko ekainaren 10ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025. urtean goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzen deialdia egin eta dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen duena.*

Agindu honen bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dirulaguntzen lerro bat ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko laguntzeko.

Izan ere, goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko jarduerak sustatzeari garrantzizko irizten dio Eusko Jaurlaritzak, eta horregatik egiten du deialdi hau. Oro har, kirola bultzatzeko pizgarri dira, lehiarako esparru bat eskaintzen die goi-mailako euskal kirolariei eta jarduera ekonomikoa sortzen dute.

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen arabera, goi-mailako kirola interes publikokoa ere bada; izan ere, batetik, funtsezko faktorea da Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzko kirola garatzeko, eta, bestetik, errepresentazio-funtzioa du Estatuko eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan. Legeak, gainera, Autonomia Erkidegoko erakunde komunei ematen die goi-mailako kirola antolatzeko eta sustatzeko eskumena.

Agindu hau Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Dirulaguntzen 2025-2028 urteetarako Plan Estrategikoaren eta 2025eko Dirulaguntzen Urteko Planean txertatuta dago. Bi plan horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren 2025eko otsailaren 27ko Agindu bidez onartu ziren eta aipatutako sailaren web-orrian argitaratu dira.

Kontuan hartuta zer xedatzen duen Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren II. tituluaren IV. kapituluak, modu aktiboan hartuko da aintzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua, dirulaguntza-programa hau landu eta aplikatzeko orduan.

Horrenbestez, beharrezkoa da kirol-lehiaketak goi-mailakotzat jo ahal izateko baldintzak eta irizpideak finkatzea, bai eta laguntza horiek eskatzeko, izapidetzeko eta emateko arauak finkatzea ere.

Horren ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako oinarriak onartzea, eta 2025ean Euskal Autonomia Erkidegoan egingo diren edo hasiko diren goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egitea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote entitate interesdunek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2025eko uztailaren 4a, ostirala

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 10a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.

## I. ERANSKINA

## OINARRIAK

## 1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honetan, 2025. urtean Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egingo diren edo hasiko diren goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten da eta dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen.

## 2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako, goi-mailako kirol lehiaketatzat joko dira nazioarteko eremua eta izaera duten lehiaketak, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nazioarteko federazio baten, europar federazio baten edo nazioarte-mailako liga profesional baten egutegi ofizialaren barruan egotea.

b) Mundu-mailako lehiaketetan, bi kontinentetako edo gehiagotako kirolariek parte hartzea.

c) Lehiaketa guztietan, bi herrialdetako eta gehiagotako kirolariek parte hartzea.

d) Zirkuitu edo liga formatuko lehiaketetan, bi herrialdetan edo gehiagotan antolatzea.

e) Tenisaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira dirulaguntzen helburu: Europar Federazioaren, Tenis Profesionalaren Elkartearen eta Kirol Egokituaren Nazioarteko Federazioaren egutegi ofizialean sartuak diren kirol-lehiaketak.

f) Surfaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira dirulaguntzen helburu: Nazioarteko Elkartearen, Europar Federazioaren eta Surflari Profesionalen Elkartearen egutegi ofizialean sartuak diren kirol-lehiaketak.

g) Boxeoaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira dirulaguntzen helburu: nazioarteko titulu ofizial bat lor daitezkeen goi-mailako kirol-lehiaketak.

2.– Lehiaketak antolatzeko ematen diren dirulaguntzak 2025eko ekitaldiko gastuak finantzatzeko erabiliko dira, soilik.

3.– Agindu honetatik kanpo geratuko dira honako lehiaketa hauek: kirol-erakusketa edo -ikuskinak eta nazioarteko eremua eta izaera ez dutenak.

4.– Ezingo dituzte inola ere dirulaguntza hauek eskatu, eta, hortaz, deialditik kanpo geratuko dira, bi sexuen arteko berdintasun-tratua eta -aukerak bermatzen ez dituzten jarduerak.

## 3. artikulua.– Aurrekontuko zuzkidura.

Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko aurrekontuko zuzkidura hirurehun mila (300.000) eurokoa da; horietatik ehun eta berrogeita hamar mila (150.000) euro 2025eko ordainketa-kredituari dagozkio eta ehun eta berrogeita hamar mila (150.000) euro 2026rako konpromiso-kredituari.

## 4. artikulua.– Entitate onuradun izateko betekizunak.

1.– Entitate hauek jaso ditzakete Agindu honen bidez arautzen diren laguntzak:

a) Kirol-federazioek, kirol-klubek, kirol-elkartek eta kirola helburu duten merkataritza-sozietateek, baldin eta legez eratuak izanik erregistro egokian inskribaturik badaude.

b) Aurreko atalean aurreikusi gabeko entitate nortasun juridikodunek, baldin eta baldin eta legez eratuak izanik erregistro egokian inskribaturik badaude eta kirol-modalitateen jarduerak antolatzen badituzte aldian-aldian edo noizean behin.

2.– Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden entitateek, eta zehazki egoera hauetan daudenek:

a) Zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete ez dituztenek, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez dituztenek. Baldintza hori betetzea nahitaezkoa izango da onuradun izaten jarraitzeko, eta, beraz, egiaztatu egingo da dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, bai eta ordainketak egiteko unean ere.

b) Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketa egunean ez dutenek, erregelamenduz zehazten den moduan.

c) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.3 artikularen 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, ezin izango da deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzarik eskuratu sexuan oinarritutako diskriminazioa eragiten duten jarduerak eginez gero. Lege horren 13.1.h) artikularen arabera, halaber, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten enpresek, ezta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera.

d) Era berean, ez zaio dirulaguntzarik emango, ez zuzenean ez zeharka, LGTBIfobia egiten, bultzatzen edo sustatzen duen inongo pertsona fisiko edo juridiko publikori, publiko, pribatu edo finantzaketa mistoko inori, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne, otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (lege hori Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGBTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa da).

e) Ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak lehiaketa bererako bideratutako dirulaguntza izendunak jasotzen dituzten entitateek.

3.– Dirulaguntza jasotzen duten entitateek enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa hartu behar dute, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 5. artikulua.– Azpikontratazioa.

1.– Entitate onuradunek hirugarrenekin itundu dezakete diruz lagundutako jardueraren % 50 gauzatzea, azpikontratu guztien prezioak batuta, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Ez da azpikontrataziotzat hartuko onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko egin behar dituen gastuak.

#### 6. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Laguntzen zenbatekoa zehazteko, norgehiagoka prozedura erabiliko da, eta horren ondorioz, Agindu honetako 3. artikuluan esleitutako zuzkidura ekonomikoa honelaxe banatuko da: 13. artikuluan zehaztutako irizpideak aplikatuz, balioespen-fasean eskabideek lortutako puntuazioaren arabera, betiere artikuluko honen 3. apartatuan ezarritako dirulaguntzaren zenbateko maximoa errespetatuz edo, kasua bada, txikiagoa izanez gero, eskatutako zenbatekoa.

2.– Dirulaguntzei buruzko proposamena eta ebazpena egiteko, betiere kontuan izan beharko dira ezarritako dirulaguntza-mugak.

3.– Jarduera bakoitzeko dirulaguntza hogeita mila (20.000) eurokoa izango da, gehienez.

4.– Aurreko paragrafoan ezarritako muga aplikatuta, ez bada erabiltzen Agindu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera egindako banaketan esleitutako zenbateko guztia, beharrezko doikuntzak egin ahal izango dira gaindikina banatzeko zenbateko osagarriak jaso ditzaketen onuradunen artean. Banaketa berri hori egiteko, arestian aipatutako mugak gainditu ez dituzten entitate eskatzaileen artean birbanatuko da sobera dagoen zenbatekoa, artikulua honetako 1. apartatuan ezarritako prozedura berari jarraituz.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Hilabetekoa izango da Agindu honetan araututako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Entitateek derrigorrez eskatu behar dute dirulaguntza bide elektronikotik, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskatzaileek Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa nahiz 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako erregistro elektronikotik aurkez ditzakete eskabideak eta egiaztagiriak.

3.– Entitate interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa bidez eskatu, kontsultatu eta gauzatuko dituzte eskabidearekin lotutako izapide guztiak, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0096014>

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin daiteke, eta, horretarako, ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

4.– Entitate eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta dokumentazioa, nahi duten eran. Halaber, prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatzen den moduan.

5.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

8. artikulua.– Entitate eskatzaileek eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Euskadiko Aurrekontu Orokorraren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 12ko Aginduaren 6.2 artikulua araberako organo kudeatzaileak, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeko aginduko du, zerga-organo eskudunek edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hurrenez hurren emandako administrazio-ziurtagiri positiboak eskatuz. Hala ere, eskatzailea horren aurka agertu daiteke, arrazoiak emanez, baina, kasu horretan, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

2.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikulua aplikatuz, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, honako betekizun hauek egiaztatuko dira eskaera-orri normalizatuan:

- a) Helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.
- b) Jaso dituela edo ez dituela jaso Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako araubideari lotutako laguntzak, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzei buruzkoan, 2021, 2022 eta 2023ko zerga-ekitaldietan. Halakoak jasoz gero, zenbatekoa eta entitate emailea adierazi beharko ditu.
- c) Entitate eskatzaileak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, eta ez duela dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuan oinarritutako diskriminazioaren ondoriozkoak barne.
- d) Eskatzaileak egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- e) Entitate eskatzailea ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua ezarritako beste ezein inguruabarretan.
- f) Entitate eskatzaileak indarrean duela berdintasun-plana, eta neurriak ezarri dituela sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko, edo, hala badagokio, ez duela dokumentazio hori edukitzeko obligaziorik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- g) Ez dagoela Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako inguruabarretan.
- h) Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuk jasoz gero, gainfinantzaketarik ez dela izango adierazten duen konpromisoa.
- i) Entitate eskatzaileak adierazi beharko du egiazkoak direla eskabidean eta horrekin batera doan dokumentazioan ematen diren datu guztiak, eta betetzen dituela dirulaguntza horien onuradun izateko indarreko araudian xedatutako baldintzak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroetan inskribatutako entitateek eskabidean adierazi beharko dute zein erregistroetan dauden inskribatuta, eta ez da beharrezkoa izango horren egiaztagiririk aurkeztea.

Entitateak ez badira agertzen inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro publiko batean ere, beren izaera juridikoaren araberrako legezko eraketa egiaztatuko beharko dute, eta estatutuak aurkeztu; ondorio horretarako, eskabidean adieraz dezakete zein erregistroetan dauden inskribatuta.

9. artikulua.– Jarduera esplikatzeneko agiriak; eskabidearekin batera aurkeztu behar dira.

1.– Jardueraren memoria; eskabide-inprimakiaren dagokion apartatuan bete beharko da. Agiri horretan, honako hauek zehaztuko dira: lehiaketaren izena, eguna eta tokia, maila, kategoria absolutuko lehiaketa den ala ez, programa olinpikoan sartuta dagoen ala ez, zenbaterik parte hartuko duten eta zenbatetan egin den.

2.– Dirulaguntzaren xedeko lehiaketa sartuta dagoen nazioarteko federazioaren, Europako federazioaren edo nazioarteko liga profesionalaren egutegi ofiziala; edo, bestela, URL lotura, zeinetan kontsulta baitaiteke aipatutako egutegia. Zirkuitu edo liga formatuko lehiaketei dagokienez, proba guztien egutegia eta haiek non ospatuko diren jasotzen dituen agiria.

3.– Kirol Kontseilu Gorenak nazioarteko lehiaketa egitea baimentzen duen agiria. Lehiaketa eskabidea entregatu den unean egin gabe badago, aurretik aipatutako dokumentua Kirol Kontseilu Gorenak egiten duenean entregatuko da.

4.– Lehiaketa eginda badago, emaitza ofizialak erantsi behar dira, eta zer kontinente, herrialde eta kirolarik parte hartu duten zehaztu. Lehiaketa egin gabe badago, aurreko urteko emaitza ofizialak eta lehiaketan parte hartuko duten kirolarien aurreikuspena erantsi behar dira.

5.– Lehiaketako kartela eta programa, emakumeen parte-hartzea sustatzen duten jarduerak zehaztuta, halakorik bada. Era berean, maila txikiagoko kirol-lehiaketako beste jarduera batzuk ere egiaztatuko dira, halakorik izanez gero.

6.– Jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu banakatua eta xehatua; eskabide-inprimakiko dagokion apartatuan bete beharko da.

7.– Dagoeneko eginda dauden jardueretarako, Agindu honen 17. artikuluan ezartzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira, egindako gastuak justifikatzeko.

8.– Jarduera garatzen bada beste entitate publiko edo pribatu batzuekin elkarlanean edo hitzarmen bidez, hori egiaztatzen duen hitzarmen edo kontratuaren kopia. Kasu horretan, eskatzailea ez den entitate antolatzaileari dagokionez, aurreko paragrafoetan ezarritako agiriak eska daitezke.

9.– Eskabidea baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazio osagarria.

Emandako dokumentazio guztiak hizkuntza inklusibo eta ez-sexista izan beharko du. Gainera, emandako datu guztiak sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

10. artikulua.– Eskabide eta dokumentuetako akatsak zuzentzea.

1.– Ikusiz gero eskabidea izapidetzeko eskatzen diren dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela, edo akatsak aurkituz gero eskabidea baloratzeko aurkeztutako dokumentazioan, hamar egun balioduneko epea emango zaio entitate interesdunari, hutsegitea konpontzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu ulertuko dela haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela, dagokion ebazpenaren ondoren.

2.– Entitate eskatzailearen batek eskabidea bitarteko ez elektronikoen bidez aurkezten badu, zuzenketak aurkezpen elektronikoen bidez egiteko eskatuko zaio. Horretarako, zuzenketa egin zeneko eguna hartuko da eskabidearen aurkezpen-eguntzat.

### 11. artikulua.– Dirulaguntzen programa kudeatzea.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak.

### 12. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Balorazio-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, hauek osatuta: Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria (batzordeburua izango da) eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak izendatutako arlo horretako bi teknikari (horietako bat idazkaria izango da). Batzorde horri aholkularitza emango diote Basque Team Goi Mailako Zentroko langileek dirulaguntza ebazteko erabilitako kirol-irizpideekin zerikusia duen guztian.

2.– Balorazio-batzordea eratzeko, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

3.– Balorazio Batzordearen osaera EHAAan argitaratuko da, eratu aurretik, interesa duen edozein pertsonak aukera izan dezan bere errefusatze-eskubideaz baliatzeko, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

4.– Batzorde horrek txosten bat egingo du, eta hor zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza. Organo kudeatzaileak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusi ondoren, ebazpen-proposamen arrazoitua egingo du, eta Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari helaraziko dio.

5.– Balorazio-batzordeko kideek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, honako hauek frogatzeko: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezartzen diren abstentziorako arrazoiren batean ez daudela; konfidentzialtasuna bermatu dela; eskatzaileek aurkeztutako agiriak proiektuak baloratzeko baino ez dituztela erabiliko, eta, txostena egin ondoren, espedienteetako agiri guztiak deialdia kudeatzen duen organoari itzuliko zaizkiola.

### 13. artikulua.– Balorazio- eta hautaketa-irizpideak.

Gehienez ere 110 puntu lor daitezke.

Balorazio Batzordeak jaso diren eskabideak aztertuko ditu eta, jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoen arabera, alderdi hauek ebaluatuko ditu:

#### 1.– Lehiaketa edo probaren maila (50 puntu, gehienez):

- Munduko txapelketak: 50 puntu.
- Europako txapelketa: 45 puntu.
- Munduko kopa: 35 puntu.
- Zirkuitu edo liga formatuko munduko txapelketa: 30 puntu.
- Kategoría goreneko nazioarteko probak: 20 puntu.

#### 2.– Kategoría absolutua (10 puntu).

Lehiaketa kategoría absolutukoa dela egiaztatzen duten eskabideek 10 puntu lortuko dituzte; hala ez bada: 0 puntu.

3.– Lehiaketa programa olinpikoan sartuta egotea (10 puntu).

Lehiaketa programa olinpikoan sartua dela egiaztatzen duten eskabideek 10 puntu lortuko dituzte; hala ez bada: 0 puntu.

4.– Lehiaketa zenbat aldiz egin den (20 puntura arte): 2024ko edizioa kontuan izanik.

Edizio-kopuruaren arabera egingo da puntu-banaketa, taula honetan oinarriturik:

- 50 edizio baino gehiago: 20 puntu.
- 41-50 edizio: 15 puntu.
- 31-40 edizio: 10 puntu.
- 16-30 edizio: 5 puntu.
- 1-15 edizio: 0 puntu.

5.– Dirulaguntzaren xede den goi-mailako kirol-lehiaketaren programan maila apalagoko lehiaketa-kirolen jarduerak sartzea (5 puntu).

6.– Emakumeak gutxi ordezkaturik dauden kirolean emakumeen parte-hartzea sustatzea (15 puntura arte). Emakumeak gutxi ordezkaturik daudela joko da, baldin eta dagokion euskal federazioan emakumeen lizentzia-kopurua % 40tik beherakoa bada.

14. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Bateragarriak izango dira deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak eta bestelako baliabideak, baldin eta helburu bererako badira eta, betiere, gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Aurrekoa gora behera, ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu, Agindu honen 4.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak lehiaketa bererako bideratutako dirulaguntza izendunak jasotzen dituzten entitateek.

15. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko ebazpena Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eman eta jakinaraziko du organo kudeatzaileak helarazitako proposamena aztertu ondoren, sei hileko epean, deialdia egiteko Agindu honek indarra hartzen duen egunetik aurrera.

2.– Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jakinarazpen-ondorioetarako eta guztiek horren berri izan dezaten. Argitalpen horren berri Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez emango da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Lehenengo apartatuan aipatutako epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute dirulaguntza-eskabidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak (Herriarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko bideari buruzkoa) 88. artikuluan eta

39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazpena egintzat joko da haren edukira sartzen den unean. Entitateak jakinarazpenaren xede-egintza jaso duela adierazteko sinadura elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kasuan-kasuan ezarritako epealdia.

Entitateak gailu elektroniko bat edo helbide elektroniko bat eman ahal izango du jakinarazpenen oharra jasotzeko. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez jakinaraziko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Lehenengo puntuan aipatutako ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluei jarraikiz; hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat.

6.– Emandako laguntzak «minimis» araubide juridikoaren mende daudela aipatu beharko da ebazpenean, Batzordearen (EB) 2023/2831 Erregelamendua berariaz aipatuz.

16. artikulua.– Dirulaguntzen ordainketa.

1.– Agindu honen kargura esleitutako dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Dirulaguntzaren % 50 adjudikazio-ebazpena jakinarazi ondoren eta 15.a) artikuluan adierazitako onartzeko epea igaro ondoren ordainduko da.

b) Dirulaguntzaren beste % 50a, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, proiektuaren justifikazioa onartu ondoren.

2.– Ez da inolako ordainketarik egingo pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu edo, itzulketa baten ondoriozko ordainketa egin ez badu, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Pertsona edo entitate onuradunak bere banku-datuak aurkeztu edo eguneratu beharko ditu Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu ahal izango da, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan onetsitako betebeharrak bete beharko dute, eta, zehazki, honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost egun baldioduneko epean, onuradunek ez badiote idatziz eta espresuki uko egiten dirulaguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diruz lagundutako proiektua deialdira aurkeztu den baldintzetan gauzatzea.

c) Dirulaguntzarako eskabidea aurkeztu ostean burutzen bada lehiaketa, burututakoan, arbitroaren aktak eta lehiaketako behin betiko programa bidali beharko zaio elektronikoki Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari.

d) Aurkeztu den aurrekontuan agertzen diren gastuak ordaintzeko erabiltzea dirulaguntza, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren emate-ebazpenarekin bat etorritik.

e) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa ematea, haiek hala eskatuz gero beren funtzioen jardunean.

f) Jarduera beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin finantzatu dela jakinaraztea dirulaguntza ematen duten organoari. Jakin bezain laster komunikatu behar zaio, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

g) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea entitate onuradunari kasu bakoitzean aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatutako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko oro ere, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

h) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapenak eta kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

i) Nolanahi ere, dirulaguntzaren xede den jarduerak iraun bitartean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak babesa ematen diola jarri beharko da ikusgai.

j) Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza deitzea jarduera aurkezteko egiten diren ekitaldi publikoetara, salbu eta ekitaldia egin ostean eman bada dirulaguntza; kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortutako agiritan jaso beharko da.

h) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa betez, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzetan ez da hizkera sexistarik erabiliko. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egoetea bermatuko da.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea proposatutako lehiaketan zehar, eta, zehazki, publizitateari eta agiriei dagokien guztian (gutunak, kartelak, liburuxkak, programak, megafonia, etab.).

m) Jasotako funtsak itzultzea deialdi honen araudian aurreikusitako kasuetan.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikazioak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira 2026ko martxoaren 2a baino lehen, Agindu honen 5. artikuluan ezarritako jarraibideen arabera eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan justifikazioak aurkeztea-ren inguruan xedatutakoa kontuan hartuta.

2.– Bide elektronikoak erabiliz aurkeztu beharreko justifikazio-dokumentazioa:

a) Jarduera gauzatzeari buruzko memoria laburtua, datuak sexuen arabera bereizita.

b) Dirulaguntzarako eskabidea aurkeztu ostean burutu bada lehiaketa, arbitroaren aktak eta lehiaketako behin betiko programa.

c) Egindako gastuak justifikatzea fakturak eta ordainketa-ziurtagiriak aurkeztuz. Fakturen bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-efikazia duten gainerako agirien bidez egiaztatuko dira gastuak. Faktura elektronikoen bidez ere egiaztatu daitezke gastuak, baldin eta zerga-arloan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte.

Faktura eta egiaztagiri guztiak espediente elektronikoari erantsiko zaizkio.

Aurkeztutako fakturek diruz lagundutako jarduera osoa justifikatu behar dute.

d) Ekitaldiaren aurrekontu likidatua, diru-sarrera eta gastu guztiak adierazita. Bereziki jaso beharko dira helburu berarekin eskuratutako beste laguntzak, eskabideak aurkezteko unean haien eraginkortasunaren berri ez baldin bazegoen (II. eranskina).

e) Egindako gastuen zerrenda zehatza, jardueraren zenbateko osoaren pareko zenbatekoarekin. (III. eranskina).

f) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza berariaz aipatzen duten dokumentu guztien aleak, laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.

g) Jarduera edo programa gauzatzean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili direla egiaztatzen duten agiriak.

19. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalan-tzarik gabe erantzuten diotenak, eskaeran zenbatu direnak, beharrezko direnak eta 2025. urtean egiten direnak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ez da inola ere izango merkatuko balioa baino handiagoa.

2.– Hala badagokio, hiru eskaintza eskatu beharko dira gutxienez, hirugarrenekin itunduko den eta diruz lagunduko den gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontra-tuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak.

Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, baldin proposamen ekonomiko mer-keenaren alde egiten ez bada. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

3.– Finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gas-tuak eta diruz lagundutako proiektua egiteko gastuak eta administrazio-gastu espezifikoak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta, baldin eta hura behar bezala antolatzeke edo egiteko ezinbestekoak badira.

Ez dira inola ere diruz laguntzeko gastu izango:

a) Banku-kontuetako interes zordunak.

b) Interesak, errekaruak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.

c) Prozedura judizialen gastuak.

5.– Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta entitate onuradunak benetan ordaintzen baditu, eta diruz lagun daitezkeen jarduerarekin zerikusia badute. Zeharkako zergak, ordea, ez dira sekula diruz lagun daitezkeen gastutzat joko, baldin eta errekuperatu edo konpentsatu badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

6.– Zeharkako kostuak diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio entitate onuradunak, arrazoiz dagokien zatian, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauekin bat, eta, betiere, jarduera egiten den aldiari badagozko kostu horiek.

20. artikulua.– Itzulketak.

1.– Itzuli beharrekoak izango dira, baldin eta:

a) Jasotako dirulaguntzak, osorik zein zatika, Agindu honetan eta dirulaguntzen arloko xedapenetan aurreikusitako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabili badira.

b) Agindu honetan eta dirulaguntzei buruzko xedapenetan ezarritako obligazioak betetzen ez badira.

c) Hala badagokio, dirulaguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa dagokion epean itzultzen ez bada.

d) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako gainerako itzulketa-arrazoiak edozein izaten bada.

2.– Betetze partzialen kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, eta kontuan hartuko da aipatutako betetzea nabarmen hurbildu ote den erabateko betearazpenera, eta pertsona edo entitate onuradunen aldetik egiaztatu ote den konpromisoak betetzeko joera argia izan dutela.

3.– Horrelako ez-betetzen bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, osorik edo partzialki, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.1 eta 2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Agindu honen 21.2 artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez izapidetuko da, aurretik aipatutako lege horren 40. artikuluan xedatutakoa bete dadin. Horrez gain, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua aplikatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen.

21. artikulua.– Emandako zenbatekoa aldatzeko, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat jotzeko eta, hala badagokio, laguntza itzultzeko prozedura.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, edozelan ere, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik beste dirulaguntza batzuk edo bestelako laguntzak jasotzen badira, edota, kasua bada, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu daiteke, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta, betiere, dirulaguntzen onuradun izateko arauetan jarritako gutxienezko baldintzak betetzen badira.

2.– Agindu honetan aurreikusitako likidazio- eta itzultze-egoeretan, prozedura hau beteko da:

a) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak hasiera emango dio likidazio- eta itzulketa-prozedurari eta hura oinarritzen duten kausei, eta 10 egun balioduneko epea emango zaio egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko. Prozedura hasiz gero, eten egingo dira oraindik egiteke dauden ordainketak.

b) Alegazioak jaso ondoren, edo epea alegaziorik egin gabe igarotzen bada, amaiera emango zaio prozedurari, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu bidez. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa

izango da, hasiera emateko erabakiaren egunetik zenbatzen hasita. Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela iritziz gero, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala bada-gokio, adieraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola dagozkion diru-kopuruak eta laguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze-interesak, ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epean. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Jaurlearitzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari jakinaraziko zaio, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraikiz jardun dezan.

22. artikulua.– Lehiari buruzko Europako araudia.

Deialdi honetan jasotako laguntzek, jarduera ekonomikoak egiten dituzten onuradunen kasuan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako «minimis» araua bete beharko dute. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati emandako «minimis» laguntzen guztirako zenbatekoa ez da izango 300.000 eurotik gorakoa hiru zerga-ekitalditan. Muga hori aplikatzeko, aipatutako erregelamenduaren 2.2 artikuluan «enpresa bakarraren» definizioari erreparatu beharko zaio.

Dirulaguntzaren eskatzaileak 2021, 2022 eta 2023ko zerga-ekitaldietan jasotako «minimis» laguntzak aitortu beharko ditu, hain zuzen ere egiaztatzeko «minimis» laguntza berriarekin ez dela gainditzen erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.

23. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu-babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: Kirolaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

- Arduraduna: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- Helburua: kirol-arloko laguntzen eta dirulaguntzen eskaerak kudeatzea.
- Legitimazioa: interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzearen alde egindako eginkizun bat betetzeko beharrezko tratamendua.
- Hartzaileak: arlo honetan eskumena duten administrazioak.
- Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza web-orrian kontsulta dezakezu:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128100-cap2-eu.shtml>

• Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra: (<https://eur-lex.europa.eu/>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)).

2025eko uztailaren 4a, ostirala

## II. ERANSKINA

## LIKIDATUTAKO AURREKONTUA

GASTUAK			
Kontzeptua	Aurrekontuan jasoa	Gauzatua	Justifikatua
Lehiaketa antolatzeko kontratatutako pertsonak/enpresak ..... ..... .....			
Nazioarteko federazioaren, Europako federazioaren edo liga profesionalaren antolakuntza-tasak ..... ..... .....			
Lehiaketa-eremua (alokatzea, eraikitzea, egokitzea, etab.) ..... ..... .....			
Beste gastu batzuk. (zehaztu zein) ..... ..... .....			
Guztira			

2025eko uztailaren 4a, ostirala

SARRERAK		
Kontzeptua	Aurrekontuan jasoa	Gauzatua
Eskatzailearen ekarpena .....		
Ente publikoen ekarpenak ..... ..... .....		
Entitate pribatuen ekarpenak ..... ..... .....		
Bestelako diru-sarrerak. (zehaztu zein) ..... ..... .....		
Guztira		

## III. ERANSKINA

## EGINDAKO GASTUEN ZERRENDA (JARDUERARENA, GUZTIRA)

- A) Gastu-egiaztagiriaren ordena-zenbaki korrelatiboa.
- B) Gastuaren justifikazio mota.
- C) Gastu-egiaztagiriaren identifikazio-zenbakia.
- D) Gastu-egiaztagiriaren data.
- E) Gastu-egiaztagiriaren igorlea.
- F) Gastu-egiaztagiriaren kontzeptua.
- G) Gastu-egiaztagiriaren zenbatekoa.

A	B	C	D	E	F	G

Balio erantsiaren gaineko zergari dagokion zenbateko kengarria ezingo da egindako gastutzat hartu.